

HITZ BITAN

EUSKO JAURLARITZA

Xabier Leibarrek Kirol arloaren zuzendaritza utz dezake, eta Jose Ramon Garai izan daiteke bere ordezkoa

Datozen egunetan aldaketak egon litezke Eusko Jaurlaritzaren kirol zuzendaritzan. Horrela balitz, Xabier Leibarrek kirol zuzendari izateari utziko lioke. Bere ordezkoa izateko dauden izenen artean Jose Ramon Garairenak du indar gehien, orain Euskadiko Pilota Federazioko presidentea izandakoa.

OLIMPISMOA

Salt Lake Cityko Neguko Olinpiar Jokoetan «olinpiar su-etena» eskatuko dutela NBOK

Datorren urtean EEBBetako Salt Lake Cityko hirian egingo diren Neguko Olinpiar Jokoetan «olinpiar su-etena» eskatuko dutela adierazi zuen atzo Jacques Rogge Nazioarteko Olinpiar Batzordeko (NOB) lehendakaria.

EPOa atzemateko Frantzia eginiko testaren alde agertu da NOBeko lehendakaria

EPOa atzemateko Frantzia eginiko testaren alde agertu zen atzo Jacques Rogge Nazioarteko Olinpiar Batzordeko (NOB) lehendakaria. Rogge adierazi zuen espero duela NOBek «bakarrik» test frantziarra ontzat ematea, eta ez odol eta gernu frogak konbinatzen dituen.

GOLFA

Jose Maria Olazabalek Hong Kongo torneoan parte hartuko du

Jose Maria Olazabal golflari hondarribiarrak datorren azaroaren 29tik abenduaren 2ra Hong Kongen (Txina) jokatuko den torneoan parte hartuko du. Olazabalekin batera, John Daly estatubatuarra, Adam Scott australiarra eta Paul McGinley irlandarra ere bertan izango dira.

NBA

Memphis Grizzlies taldeak irabazi gabe jarraitzen du

Pau Gasol jokalaria kataluniarren Memphis Grizzlies taldeak partidari irabazi gabe jarraitzen du, atzo Phoenix Suns taldearen aurka 101-113 galdu ostean. Gasolek 27 puntu egin zituen.



FRANZ PETER TSCHAUNER / EPA

Aldag eta Zabel irabazle Dortmundeko Sei Egunean

Telekom taldeko Rolf Aldag eta Erik Zabel izan dira Dortmunden 60. aldiz jokatu Sei Eguneako irabazleak, Suitzako Kurt Betschart eta Bruno Risi bikotea eta Alemaniako Andreas Beikirch eta Andre-

as Kappesen aurretik. Aldag eta Zabel bikain moldatu ziren belodromoan, eta garbi gelditu zen errepidetik kanpo ere puntako txirrindulariak izaten jarraitzen dutela.

KIROLDEGIA. Eskubaloiko Barakaldok eta saskibaloiko Bilbao Basketek jasoko dute laguntza handiena

Erredakzioa | BILBO

Gipuzkoan Kirol Fundazioak jarritako bideari jarraituz, Bizkaialde Fundazioa sortu zuten iaz, Bizkaiko klubei laguntzeko helburuarekin. Bere bigarren urtean, fundazioa indarberriturik agertu da, iaz baino babesle eta diru laguntza gehiago izango baititu. 137 milioi pezeta —5,48 milioi libera— banatuko ditu 19 klubetan, eta horien artean Barakaldok eta Bilbao Basketek jasoko dute zatirik handiena.

Diru banaketa egiteko, Bizkaialdek hainbat irizpide ditu. Hasteko, Espainiako bi maila nagusienetan ari diren taldeak laguntzen ditu soilik —Athleticeen kasua salbu—, eta horien artean banaketa egiteko bost irizpide ditu. Maila bakoitzeko batez besteko aurrekontuak kalkulatu dituzte lehenik, eta gero kirol bakoitzak gizartearen duen isla neurtzen dute —lizentzia kopurua, ikusle kopurua. Gainera kontuan hartzen dira kirol emaitzak, eta talde bakoitzak duen jokalaririk onenaren kopurua. Azkenik, diru iturri propio gehien sortzen dituzten klubak saritzen dira.


Bizkaiko Foru Aldundiko kirol zuzendari Luis Solarren ustez, egokiena da klub bakoitzak lau diru iturri izatea: Bizkaialde,

Bizkaialde Fundazioak 137 milioi pezeta banatuko ditu Bizkaiko 19 talderen artean

Diru laguntzak

Barakaldo UPV (eskub.): 30 milioi pezeta (+5)
Bilbao Basket (saskib.): 25 milioi (=).
Bilbo (areto futbola): 16 milioi (+7).
Bizkorra (atletismoa): 11 milioi (=).
Getxo Arte (errugbia): 9 milioi (=).
Askartza (waterpolo): 7,5 milioi (+0,5).
UPV Bizkaia (boleibola): 5,5 milioi (+2,5).
Zuharrak (aulki gorpildunak): 5 milioi (+2).
UPV San Inazio (beisbola): 5 milioi (+2).
Irlandesas (saskibaloia): 4,5 milioi (+3,9).
Tabirako (saskibaloia): 4,5 milioi (+3,9).
Etzebarri (eskubaloia): 4 milioi (+1).
Ortuella (atletismoa): 3 milioi (=).
Bidezabal (atletismoa): 3 milioi (+3).
Zuazo (eskubaloia): 1,5 milioi (=).
Bilbao (futbola): 0,6 milioi (=).
Bizkerre (futbola): 0,6 milioi (=).
Retuerto (futbola): 0,6 milioi (=).
Leioa: 0,6 milioi (+0,6).

beste babesleak, hainbat produktoren salmentak, eta jarraitzaileak. Dena den, Solarrek berak dio baldintza horiek ez direla betetzen: «Badakigu klub asko gure laguntzen zain daudela aurrera atera ahal izateko, baina gu ez gaude arazoak konpontzeko, gure helburua bultzada bat ematea da. Klubek euren diru iturri propioak izan



XOUSE SIMAL

Barakaldok jasoko du diru laguntzarik handiena.

behar dituzte». Solarrek dio diru laguntza behar duen taldeak ez duela gizartearen behar adinako babesa: «Kazetari batek galdetzen badit ea zergatik 20 milioi klub bati eta bakarria besteari, bere medioak bati 20 orrialde eta besteari bakarria ematen dizkion arrazoi berberetatik dela erantzuten diot, gizarteari lotu behar gatzazkio-

lako. Zergatik eman behar diogu beisbolari diru mordo, gero inor ez bada ikustera joaten?».

Getxo Arteko presidente Agustin Martinez ez zen batere pozik egindako banaketarekin: «Gehiago espero nuen. 25 milioi aurrekontua dugu eta 9 bakarrik eman dizkigute. Banaketa egiteko irizpideekin ez nago batere ados».